



Ihesi

GOTZON ARANBURU

Argazkiak: Urretxuko Kultur Etxea

Euskal Herria ezagutzuz:
Urretxu (Gipuzkoa)

Euskal Jaia, Urretxu ezagutzeko gida

50 urte beteko ditu irailean egingo den Urretxuko Euskal Jaia, eta aitzakia ederra izan daiteke Urola Garaiko herri hau bisitatzeko. Aparta izango da 2009koa; karrozen desfilea izango du ardatz, baina askoz gehiago eskainiko du, esaterako punta-puntako eskulangintza erakusketa.

FRANKISMO BELTZEAN jaio zen Urretxuko Euskal Jaia, 1959an, euskal sena eta nortasuna pixka bat berpiztu nahiak bultzatua. Erregimenak guztiz zapalduta eta isilarazita zeukan Euskal Herria, baina urretxuar talde batek adorea izan zuen urte hartako irailaren 13an euskal kutsuko sei gurdi

kalera ateratzeko, herriko koadriren eskutik. Harrituta eta hunkituta ikusi zituzten urretxuarrek eta kanpo herrietatik etorritakoei *Sagardotegia*, *Euskal kirolak*, *Joku leku*, *Bolatoki*, *Juntetxea* eta *Café San Luis* (Iparragirrerri eskainia) izeneko karrozak. Garaiko gobernadore zibilek ez zuten

begi onez ikusten Euskal Jaia, jakina, eta 1965ean debekatu egin zuten. Izan zen tarte bat karrozarik gabea, baina berriro hasi ziren 1974an eta ordudunik ez du jaiak etenik izan, beti ere izaera erreibindikatiboa erakutsiz.

Herriko hainbat txoko eta erai-kin irudikatu izan dituzte koadri-



Zailtasunei aurre eginez, frankismo beltzean eman zituen Urretxuko Euskal Jaia lehen urratsak.

Irimora, ikuspegi ederren bila

Mendiaz eta basoaz gozatu nahi duenak Ipeñarrietatik gora jo dezake, Irimoko gailurrerantz, Lizarriturin ur freskoa edateko geraldia eginda. Iturri honek ere izan zuen bere karroza Euskal Jaian, 1996an, *Bandbuztanoker* koadrilaren eskutik. Club Alpino Txindoki-ko kideek egin zuten iturria, 1936ko Gerraren bezperatan, aitzurrak, zementua eta palak bizkarrean hartuta mendian gora abiatu eta igande mordoa lan horri eskainiz. Eta gorago segi nahiz gero, berehala jarriko ditugu oinak Irimo mendiaren tontorrean. Gomendagarria benetan argazki kamera soinean eramatea, hemen-diko ikusmira oso ederra baita. Gurutze handi bat dago gailurrean, eta hori ere auzolanean zutitutakoa da, 1955. urtean, 2005eko Euskal Jaiko karroza batek gogorarazi zigun moduan.

Irimotik behera, kalerantz, Santa Barbarako baselizaren ondotik pasatuko gara. Ekainak 24 baldin baditu zorionekoak gara, San Juan eguneko erromeria ospatzen ariko baita ermitaren ingurunean. Herri kirolak, dantzariak, meza, bazkari herrikoia... Denetarik izaten da udari ongietorria emateko. *Aterpe* koadrilak erakutsi zigun 2002ko Euskal Jaiko karrozan Santa Barbarako baselizaren lehenengo berri idatzia 1540. urtekoa dela. Urretxu-

ko kaskora iritsi aurretik, merezi du inguruko baserriak ikustea, esaterako Zabaleta, eskualde honetan ohiko ez diren harrizko arkuak erakusten dituen atarian.

Kalera iritsita, Udaletxea da aurreneko ikusi beharrekoa. Harri arrosaz eginiko eraikin hau Granada de Ega-ko dukeei erosi zieten 1891n herriko zinegotziek, 58.000 erreal ordainduta. Burdin forjatuzko hamar balkoi eta egurrezko teilategi landua ditu, baita honako esaldi hau ere fatxadan zizelkatua: *“En la casa del que jura no faltará desventura”*. Iparragirre enparantzako lau aldeetako bat osatzen du Udaletxeak, eta San Martin de Tours elizak beste bat. *Zalantza* koadrilak eraman zuen azken hori bere gurdian, 1983an, eta orduko hartan gogorarazi zigun 600 urte beteak zituen parrokia izan zela Urretxuko historiako lehendabiziko eraikina. Plazaren buru, berriz, Jose Mari Iparragirre abeslari-bertsolari-poetaren estatua dago, gitarra eskuan. Iparragirre ere behin baino gehiagotan izan da karroze-tako protagonista, nola ez.

Arkitekturak badauzka beste hainbat erakusgarri Urretxun, hala nola Areizaga jauregia, eta berau ikusi ondoren Euskal Jaiko karroza askoren (1987an, 1996an...) gai izan den Urolako Trenaren geltoki zaharra bisitatu dezakegu, baita bertan zerbeza bat hartu ere, gaur egun Gazte-txea baita. Zumaiarainoko bidea egiten zuen trena 1986an kendu zuten, herritarrek protesta gogor egin arren. Gaur egun bidegorri bihurtuta dago trenbidea. ■

lek karrozetan urteetan zehar, eta horiei jarraitu besterik ez dugu egun pasa antolatzeke Urola ibaiak zeharkatzen duen herri honetan. Irimo mendiaren magaleko Ipeñarrieta jauregia izan daiteke hasiera puntu egokia; 1994an *Bakko* neska koadrilak erakutsi bezala, Corral-Ipeñarrieta familia noblea bizi izan zen bertan XVII. mendean. Diego de Corral eta Antonia de Ipeñarrieta garai hartako *“high society”*-ko kide izan ziren, Velazquez margolari ospetsuak euren erretratuetan egin izanak erakusten duenez. Ipeñarrieta jauregia, gaur egun baserriko eginkizunetara emana, arkitektura aipagarrikoa da, eta bertatik Urretxu eta Goierriko hainbat herriren ikuspegi paregabeaz gozatu dezakegu, baita Aizkorri eta Aralar mendi-kateenaz ere.

Urretxu

euskal jaia

50
urte
1919-2009

Euskal Jairik ederrenak

irailaren 20an

www.urretxu.net

